



Esp. kodea: 2014SAPL0007

Gaia: Plenoa 2014/06/03

## **AKORDIOEN LABURPENA**

Udal Plenoak, 2014ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

### **Bertaratu diren zinegotziak**

Bertaraturakoak: 1-6 puntura arte      17    BILDU (10), EAJ-PNV (3), PSE-EE (3) eta ARALAR (1)  
Bertaraturakoak: 7-18 puntura arte    16    BILDU (9), EAJ-PNV (3), PSE-EE (3) eta ARALAR (1)

### **1.- 2014KO APIRILAREN 8, 10 ETA 28KO BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko apirilaren 8an, 10ean eta 28an egindako bilkuren aktak onartu ditu.

### **2.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA LOKALA ETXEBIZITZA BIHURTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN TESTU BATERATUAREN ALDAKETA PUNTUALARI (ORDENANTZAREN 9. ALDAKETA.(2014HORD0002)**

Udal Plenoak, aho batez, hasierako onspena eman dio Lokala Etxebizitza bihurtzea arautzen duen Ordenantzaren Testu Bateratuaren aldaketa puntualari (9. aldaketa). Espedientea jendaurrean izango da 30 eguneko epean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da akordio hori.

### **3.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA ÍARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZARENÍ 1.ALDAKETA PUNTUALARI. (2014HORD0003)**

Udal Plenoak, 11 zinegotzien aldeko botoekin (10 BILDU eta 1 ARALAR), eta 6 kontrako botoekin (3 EAJ-PNV eta 3 PSE-EE), hasierako onspena eman dio “Arrasaten Araupeko Aparkalekuaren Udal Ordenantzaren” 1. aldaketa puntualari. Espedientea jendaurrean izango da 30 eguneko epean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da akordio hori



Esp. kodea: 2014SAPL0007

Gaia: Plenoa 2014/06/03

#### **4.- ESLEIPENAK EGITEA ZERRAJERA ETA UARKAPEN KOKATURIKO HAINBAT LOKAL INORENTZEKO ENKANTEAN.(2012HENK0001)**

Udal Plenoak, aho batez, esleipen hauek onartu, eta, lokal hauek inorentzea erabaki du:

- Txacta kalea 1eko 10.zenbakidun lokala Testigos Cristianos de Jehová elkarteari, 120.000 €tan.
- Uarkapeko 29.zenbakidun lokala Eva Maria Aracama Aloari 10.000 €tan
- Uarkapeko 32.zenbakidun lokala Eva Maria Aracama Aloari 23.000 €tan

#### **5.- ÍAUKEAÐ KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA DEUSEZTATZEKO, ETA KIROL ZERBITZUAK UDALAK BERAK ZUZENEAN KUDEATZEKO AKORDIOAREN HASIERAKO ONARPENA.(2014PBAJ0002)**

Udal Plenoak, aho batez, hasierako onespina eman dio AUKEA kirol erakunde autonomoa deusestatzeko akordioari, kirol zerbitzuak Udalak berak zuzenean kudeatzeko. Espedientea jendaurrean izango da 30 eguneko epean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da akordio hori

#### **6.-ÍENPLEGUA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO DOTAZIOAÍ KONTUSAILAREN BANAKETA EDO EGOKITZAPEN PROPOSAMENA. (2014DKRE0001)**

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko Aurrekontuko “*Enplegua Sustatzeko Jardueretarako Dotazioa*” kontusailaren banaketa proposamena onartu du, horretarako dagokion kreditu aldaketa onartuz.

#### **7.- 2014 URTEKO AURREKONTUAN GASTU-ERREGELA EZ BETETZEAREN BERRI EMATEA UDALBATZARRARI.(2014RBAR0023)**

Udalbatzarrak kontuhartzaileak aurkeztutako txostenarten berri hartu du, 2014ko Aurrekontuan gastu-erregela ez dela betetzen adierazten duena. Hala ere, egonkortasunaren eta zorraren helburuak betetzen direnez, txosten horrek ekonomia eta finantza-plana ordezkutzen du.



Esp. kodea: 2014SAPL0007

Gaia: Plenoa 2014/06/03

**8.- 2014/2015 IKASTURTERAKO AUKEA, INGURUGIRO ESKOLA ETA EUSKALTEGIKO TASEN ALDAKETA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA, ETA UARCAPEKO PILOTALEKUA ALOKATZEAN TARIFA BEREZIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK ONTZAT EMATEA.(2014RBAR0022)**

Udal Plenoak, aho batez, behin-behinekoz onartu ditu 2014/2015 ikasturterako AUKEA, Ingurugiro Eskola eta Euskaltegiko tasen aldaketa, eta baita Uarkape pilotalekua kirol erabileretarako ez diren ekintzetarako tarifa bereziak. Espedientea jendurrean izango da 30 eguneko epean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da akordio hori.

**9.- ARRASATEKO UDALA ETA FIARE ELKARTEAREN ARTEAN ELKARLANERAKO HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA.(2014DKON0003)**

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du FIARE elkartearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea Udalak Fiare proiektuan erakunde laguntzaile gisa jardun dezan. Aldi berean erabaki du 1.800 €ko diru ekarpena egitea kreditu-kooperatiban kapital sozialeko partaidetzak erosteko.

**10.- 2014 URTEKO AURREKONTUAREN EGOERAREN BERRI EMATEA MARTXOAREN 31KO DATAZ (2014RBAR0021)**

Udal Plenoak 2014ko Aurrekontuaren exekuzio egoeraren berri hartu du (2014/03/31ko dataz).

**11.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO 1. HIRUHILABETEAN ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.(2014RBAR0020)**

Udal Plenoak 2014ko 1. hiruhilabetearen Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketa espedienteen berri hartu du.

**12.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA ONARTZEA.(2013EEUS0014)**

Udal Plenoak, aho batez, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartzea erabaki du.



Esp. kodea: 2014SAPL0007

Gaia: Plenoa 2014/06/03

---

**13.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA, MEDIANTE LA CUAL SE RECHAZA LA REFORMA DEL ÍNDICE DE REVALORIZACIÓN DE LAS PENSIONES.(2014SMOZ0009)**

Udal Plenoak, 6 zinegotzien aldeko botoekin (3 PSE-EE eta 3 EAJ-PNV) eta 10 abstentziokin (9 BILDU eta 1 ARALAR), udal talde sozialistak aurkeztutako Mozioa onartu egin du, zeinaren bidez pentsioen errebalorizazio indizearen erreformaren aurkako iritzia adierazten da.

**14.- MOZIOA, BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKOA, EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKOA (2014SMOZ0013)**

Udal Plenoak, 10 zinegotzien aldeko botoekin (9 BILDU eta 1 ARALAR), eta 6 kontrako botoekin (3 EAJ-PNV eta 3 PSE-EE), BILDU eta ARALAR udal taldeek aurkeztutako Mozioa onartu egin du, Euskal Kutxen etorkizunari buruzkoa.

**15.- MOZIOA, BILDU, EAJ-PNV ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKOA, EUSKAL SELEKZIOAREN OFIZIALTASUNARI BURUZKOA (2014SMOZ0011)**

Udal Plenoak, 13 zinegotzien aldeko botoekin (9 BILDU, 3 EAJ-PNV eta 1 ARALAR), eta 3 kontrako botoekin (3 PSE-EE), BILDU, EAJ-PNV eta ARALAR udal taldeek aurkeztutako Mozioa onartu egin du, Euskal Selektzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen duena.

**16.- MOZIOA, BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKOA, HAUSTURA HIDRAULIKOA IKERTZEKO ABIAN DAUDEN BAIMENEN ETETEARI BURUZ.(2014SMOZ0012)**

Udal Plenoak, 10 zinegotzien aldeko botoekin (9 BILDU eta 1 ARALAR), eta 6 kontrako botoekin (3 EAJ-PNV eta 3 PSE-EE), BILDU eta ARALAR udal taldeek aurkeztutako Mozioa onartu egin du, haustura hidraulikoa ikertzeko abian dauden baimenen eteteari buruzkoa.



Esp. kodea: 2014SAPL0007

Gaia: Plenoa 2014/06/03

---

**17.- ALKATEAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI HARTZEA, AZKENEKO BILKURATIK PLENO HONETAKO DEIALDIA EGIN DEN EGUNERA ARTEKOAK.**

Udal Plenoak Alkateak emandako dekretuen berri hartu du, Plenoaren azken bilkuratik gaurko bilera honetako deialdia egin zen egunera arte emandakoak, alegia.

**18.- GALDERAK ETA ESKARIAK.**

Ez dira galdera eta eskaririk izan

Arrasaten, 2014ko ekainaren 4a

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga